

Altza

Altzako sustraietaraino

Historia mintegiak kaleratutako azken liburua aurkeztuko da Euskal Jaietan


Larraitz Garmendia [943 391267]

Datorren igandean, hilak 19, San Martzialgo jubilatuen etxean Altzako erro historikoak aztertu dituen "Altzako baserrietako etnografia" liburuxka aurkeztuko da goizeko 11.00etan. Liburuaren aurkezpena Altzako Euskal Jaien egitarauaren barne antolatu da. Honako hau Altzako Historia Mintegiak "Artiga" bildumaren barruan kaleratutako hirugarren alea da, aurrekoetan "La formación de Altza en la Edad Media", eta "La vida social en Altza en la edad moderna" plazaratu baitzituen.

Galdeketa baserritarrei

Alex Ibañez, EHUko Didaktika eta Giza Zientzia departamentuko irakaslea da

egitasmo honen zuzendari eta koordinatzaile. Berarekin batera Itxaso Mendiluze, Uri Zubiaurre eta Maider Aierdi aritu dira lanean. Egitasmo honen helburua herriko gizataldearen ezaugarri historikoen eraldaketa prozesua aztertzea izan da. Horretarako, adinez nagusi diren Pelegríñene, Kastilun, Bordazar, Akular eta Txurdiñene baserrietako bizi-lagunei, Joxe Migel Barandiaranek 70eko hamarkada hasieran proposatu zuen inkesta etnografikoak biltzen dituen galderak egin zaizkie. Galdeketak zenbait alor eta gai jorratzen ditu. Etxebizitzari dagokionean, elikadura, janzkera, familia, etxearen egituraketa, gaixotasunak eta sendagaien gainean



Irudian Pelegríñene baserria ikus daiteke. Argazkia Casareseko tokiko bildumak utzitakoa da.

hitz egiten da. Kultura arloa ere era sakonean aztertua izan da; bertan erlijioa, eskola, festak, sineskeriak eta ipuin-kondairak ezagutu ahal izan-

go ditugu. Gainera, artisautza eta lanbideari buruzko informazioa jasotzen da eta baita abelzaintza, arrantza edota nekazaritzari buruzkoa ere.

Altzako VI. Euskal Jaiak

Ostirala, hilak 17

20.00: Gazteluene bertso eskolaren bertso-triki poteoa.

Larunbata, hilak 18

Haurrentzako jinkana goizez.

Euskal karaokea eta txokolatete jatea arratsaldez Larratxon

21.00: Atxantatu eta Ezin Izan taldeen kontzertua Auzo-Etxean.



Igandea, hilak 19

Artisautza azoka goizez plaza gorrian.

11.00: "Altzako baserrietako etnografia" liburuxkaren aurkezpena San Martzialgo jubilatuen etxean.

14.30: Herri bazkaria frontoian trikitilari eta bertsolariekin.

Bai Euskarari

Bai Euskarari akordioaren plan estrategikoa dela eta, bilera informatiboa dago Altzako Auzo Etxean, martxoaren 20an, iluntzeko 20.00etatik aurrera. Bertan Kontseiluko arduradunetako bat izango da planaren berri emateko.

Odontologia Klinika
Dr. Beobide
Ametzagaña 49
Tfnoa.: (943) 276227
Medikua - Odontologia

NARRIKA
taberna
Narrika 16
Tfnoa.: [943] 427327

MAHALA baserriko esneki naturalak

- BEHI GAZTA FRESKOA
- YOGURRAK: NATURALAK • DESNATATUAK
FRUITUDUNAK
Mahala baserria • IEABURU • Tfnoa.: (943) 673499

HERMES
ARROPA ETA OSAGARRIAK
2. ESKUKO ARROPA
KOMIKIAK, DISKOAK ETA ABAR
Fermin Calbeton 33 • PARTE ZAHARRA
Tfnoa.: 943-420659